

Durangoko gure birigarroa

Amaia Aroma Lejarreta

IXONE AROMA BARRENA

Amaia Aroma Lejarreta Abadiñoko *Bizketxe* baserrian jaio zen, 1936ko urrian. Gurasoak Durangon bizi arren, Gerra Zibila zela eta, segurtasunagatik hara joatea erabaki zuten, Durango bonbardatuko zuten beldurrez. Familiakoak ziren bertakoak eta euren arteko harremana estua izan zan beti. Lehen urteak Durangoko Kalebarrian egin zituen, baina Andra Mari kaleko 13.ean bizi izan zen bere bizitzako urte gehienetan. Musikarekin txikitatik izan zuen hartu-ernana, aitari asko gustatzen baitzitzaion abestea eta aukera zuenean dantzan ere animatzen zen.

Aromak Santa Susana eskolan egin zituen lehen solfeo eta piano ikasketak, eta 16 urte zituenean hasi zen txistuagaz. Antonio Urgoiti durangarra izan zuen irakasle. Urgoitik aurreko urtean beste neska bat izan zuen ikasle, baina hark urtebetera utzi egin zituen klaseak eta Amaiak ere laster utziko ziola txistua ikasteari uste zuen, baina ez zen horrela izan; bi urtez ibili zen Urgoitirekin.

Durungaldeko lehen emakume txistularia

María Isabel Trueba lehengusínak animatu zuen Amaia txistua ikastera. Cruzada Eucarística taldeak ez zuen txistularirik eta Urgoitik ez zituen klaseak kobratzen, Amaiarik aukera ona iruditu zitzaion aproba egitea eta txistua ikasten hastea. Bere lehen txistu eta danbolina Patxi Zurikarai osabak erosi zizkion Bilbon. Osaba euskaltzalea zenez eta musika maite zuenez gero, harro zegoen bere iloba txistularia izateaz.

Santa Susanako taldeagaz hasi eta beste talde ugari etorri ziren beranduago. Hainbat urtez aritu zen txistua jotzen eta *Garbi Alaiak*, *Tronperri* edota *Kriskitineko* dantzariek berak jotako doinuei esker dantzatu (ahal) izan dute hainbat plazatan.

Garai hartan ohikoa zen moduan, jasotakoa ondorengoei transmititu zien Amaiak eta bai Urgoitirekin, bai eskarmentuari esker ikasitakoak hainbat ikasleri irakasten aritu zen, besteak beste bere neba Juan Antonio Aroma, Susana Zuriturrisa eta Bego Solagaistuari.

20 bat urte zituela, Euskal Herriko txistulari elkarteko kide egin zen. 4 urte zeramatzan jada txistua jotzen eta zeregin horretan jarraitzeko asmoa zuen, baita egin ere: 60 urte zeuzkala utzi zion txistua jotzeari, atzetik zetozenei lekua egitearren, baina txistuarekiko zaletasuna oraindik odolean darama eta bere aitaren antzera, ez du kanturako edo dantzarako aukerarik galtzen txistu doinua entzuten duenean.

1957 Santa Susana



1960 Garbi Alayak



1963 Donostia. Erdian Michel Labeguerie abeslari uztariztar



Euskal Herriko emakume txistulari aitzindariak

1959. urteko abuztuan, Bilboko jaietako kontzertu nagusira joateko asmoa adierazi zion Amaiak Txistulari Elkarteari gutun bidez, baina emakume txistulariak ez zirela itxurazko gure herrian erantzun zioten; kalejiran eta bazkarian parte har zezakeela, baina kontzertuan ez.

Ez zuen erabaki hura gogo onez hartu, ez baitzegoen ados jasotako erantzunarekin. Bere ahizpa Eskarneren babesa izan zuen Amaiak une oro eta honako gutun hau helarazi zion Eskarnek elkarteari:

Durango 14 - 8 - 59

Sr. Secretario de la Asociación de Txistularis:

Soy una partidaria entusiasta de nuestro "txistu", y como en años anteriores, el día 22 de este mes, tendré el gran placer de admirar y aplaudir a todos los txistularis que se reunirán en el Arenal, para interpretar con su instrumento antiguo y sacralizar nuestra música inigualable.

Pero... ¿no cree Vd. que en este alarde falta la nota elegante y simpática de "nuestras txistularis"? Tengo conocimiento, por estar íntimamente ligada con ella, de las gestiones que sobre el particular llevó a cabo una txistulari duranguesa, a la que no se le admitió por varias razones que se le expusieron pero que ni a ella ni a nadie convencieron. Este año no ha insistido por esperar la misma negativa, pero resulta que en el alarde de Vitoria tengo noticias de que ha tomado parte una txistulari y en este caso soy yo la que les hago la indicación.

¿No cree Vd. que también el esfuerzo y el entusiasmo de estas "neskatillas" se merece el aplauso del público bilbaíno? Ellas no aspiran a esto, su trabajo es tanto más meritorio cuanto que precisamente es más anónimo, pero... ¿no les impulsará mucho más en su ardua labor, como es el aprendizaje del txistu, al verse comprendidas y rodeadas del cariño, la admiración y la simpatía de los miles de vizcainos que ese día nos reuniremos para aplaudirles?

Estoy segura que ha todos los vizcainos agraderá ver que el txistu también se ha dejado conquistar (no iba a ser una excepción por el encanto de unos labios femeninos que con energía y tesón, saben arrancarle sus mejores sonos, para derramar en torno suyo la alegría desbordante de sus jotas y biribilquetas, o las notas suaves y melancólicas de un zortziko.

No creo que mi indicación les resulte una impertinencia por lo menos no era esa mi intención, solamente abogaba en favor de una s jóvenes a quienes admiro en su labor y quienes me han proporcionado unos ratos felicísimos lo mismo cuando con su música despertaban los ecos dormidos de la montaña como cuando en las alegres romerías hacían disfrutar a la juventud de esa alegría sana y honesta de la que tan necesitados nos vamos en la actualidad.

Hasta el día 22 en el que nos volveremos a reunir para aplaudir a Todos los Txistularis.

Una duranguesa.

Elkarteari, hasieran hartutako erabakian atzera eginez, onartu egin zuen Amaia Aromaren partaidetza kontzertuan, beste ekintza guztietan bezala. Egun ahaztezina izan zen hura Amaiaarentzat zein bere ingurukoentzat eta urrats garrantzitsua ondoren etorriko ziren emakume txistularientzat.

Aitzindari hauen ekinari esker, gaur egun naturaltasun osoz ikusten ditugu andrazkoak plazan, eskenatoki gainean, zein bestelako ekitaldietan txistu eta danbolina eskuetan. Amaia bezala bidegile izan ziren "neskatilla" guztiei, eskerrik asko eta zorionak!●

Tronperri



1961 Iruñean



1987 Kriskitin

